

Ezpalak

JON TORNER

Anish Kapoorren artelanak Bilboko Guggenheimen



ANISH KAPOOR artista indiarra 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte egindako pintura eta eskulturak paratu ditu Bilboko Guggenheim museoan. Kapo-

orrek formaren eta espazioaren inguruan egin dituen ikerketek, eta kolore eta materialekin egin duen erabilera nabarmen eragin dute egungo eskulturaren bilakaeran. Artistari, bere obrari eta Bilboko erakusketari buruzko informazio gehiago www.guggenheim-bilbao.es webgunean aurkituko duzue.

Antzinako mapen bilduma

BIZKAIKO DIPUTAZIOAK *Euskal Herria museoa: Kartografia bilduma* liburua kaleratu du herritarrak jabetu daitezkeen mapa eta plano zaharren balioaz. 66 dokumentu jaso ditu liburuak; tartean dira Bilbo, Baiona edo Iruñeko planoak, Gipuzkoako lehen mapa inprimatua, Nafarroako erresuma zaharreko sei merinda-deak erakusten dituen dokumentua... Liburua CD-ROM batek osatzen du eta 2.000 aleko edizio berezia kaleratu dute. Bizkaia.net webguneko Kultura sailean liburua PDF bertsioan (42171 Kb.) deskarga daiteke oso-osorik (<http://ttiki.com/11625>). Bildutako mapa eta planoak Gernikako Euskal Herria museoan jarri dituzte ikusgai.

Asel Luzarraga idazlearen aldeko jaialdia egingo da martxoaren 27an Bermeoko Kafe Antzokian. Besteak beste, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Joseba Tapia, Gatibu, The Uski's, Asier Serrano, Ken Zazpi eta Kerobiak parte hartuko dute Asel Askatu plataformak antolatutako ekitaldian.

Saroi Jauregi zaldibiarra da Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari berria. Euskal Filologian lizentziatua, Elhuyar Fundazioan egiten du lan, euskarazko testuen zuzentzaile moduan. ETBko *Hitzetik Hortzera* saioan aurkezle ibili zen 2005etik 2008ra, eta herriarte-ko txapelketan hasi zuen gai-jartzaile ibilbidea.

SOS-Iruña Veleia plataformak webgunea (www.sos-irunaveleia.org) sortu du, "aurkikuntzez eztabaida elektronikoko serio eta sistematikoari bide emateko asmoz". Webgunea Koenraad Van den Driessche doktoreak, Eliseo Gil aztarnategiko zuzendari ohiak eta Idoia Filloy zuzendariorde ohiak aurkeztu dute.

● **Naroa Zubillaga itzultzaileak Beterriko Liburuaren 45. zenbakian:** «Itzultzea positiboa da, horrek ez du esan nahi jendeak lan horiek irakurriko dituenik, baina irakurriko baditu ezer baino lehen aukera eskaini behar zaio. Gero urteak pasa ahala ikusiko da funtzionatzen duen edo ez, espero dezagun baietz. Azkenaldian, kanpoan arrakasta izaten ari diren lanak aldi berean euskarara itzultzen eta eskaintzen hasi dira, eta uste dut argitaletxeek arrisku hori hartu behar dutela; irakurleak bi urte lehenago liburu hori gaztelaniaz aurkitu badu beharbada gaztelaniaz irakurritako izango du, eta ez du berriz euskaraz irakurriko».

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php